

## SOS Iruña-Veleiaren salaketa bertan behera

SOS IRUÑA-VELEIA plataformak salaketa jarri zuen Arabako Foru Aldundiaren aurka Iruña-Veleiako aztarnategian ondarea desegiten ari zelakoan. Auzitegiak ordea, atzera bota du salaketa, nahikoa frogarik ez dagoelako. Bestalde, SOS Iruña-Veleia plataformak auzia argitzearen alde dauden 2.132 sinadura aurkeztu ditu Foru Aldundian.

Gai honen harira *Berria* egunkarian Amerikako Estatu Batuetako Roslyn May Frank irakaslea elkarriketatu dute eta, besteak beste, hau dio Iruña-Veleiaren aferez:

“Gaiak guztiz liluratuta eta kezkatuta nauka. Nire ustez, grafitoak benetakoak izan daitezke. Ezin dut ulertu gertatzen dena. Ezin dut ulertu nola ez diren egin auzia betiko erabakiko luketen laborategiko analisi fisiko-kimikoak. Gai hau ez da Araba edo Euskal Herrikoa soilik, aurkikuntzak benetakoak balira, mundu mailako garrantzia izango lukete. Horregatik, oso larria iruditzen zait hain argudio arinekin faltsutzat jotzea”.

### ‘Atera arbela kalera!’

AEK-REN KANPAINA DA. Ez da euskaltegiaren izena ematekoa, leloak

dioen bezala, kalean euskara erabiltzeko kanpaina da. Argazki mordoa atera dituzte AEK-k Euskal Herrian dituen mintzalagun taldeek, eskutan arbela dutela. Arbelean hitz andana: “auzoan”, “kalean”, “mendian”, “hor”, “edonon”, “bikotean”, “egizu amets”... Praktikatu.blogspot.com webgunean dago musika martxosoarekin egindako argazki muntaia. Helburua horixe, hain sinplea eta hain konplexua, norberak dakien euskara erabiltzea.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Greba orokorra ez desprestigiatzea

Langile mugimenduaren historian, greba orokorra tresna garrantzitsua izan da gobernuen eta patronalaren aurrean egin beharreko aldarrikapenen alde borrokatzeko. Tresna hau, ez da erabili edozein momentutan eta edozer egoeratan. Momentu erabakiorretan baino ez da erabili, indarrak neurtuz, helburuak lortzea aurreikusi denean. Eta batez ere, beti erabili izan da indar eta sentsibiltate ezberdinen arteko ekintza bateratua egon denean. Gainera, greba orokorrarekin lortu nahi da sektore guztiak geraraztea, ez bakarrik industria: garraioa, administrazioa, ostalaritza, zerbitzuak, komertzioa, hezkuntza, osasungintza, kirolak, kultura... Azken batean, greba orokorrak herritarren eta gizartearen bizitza gerarazi behar du.

Joan den astean, irailaren 29an, CCOO eta UGT-k Hego Euskal Herrian deituriko greba orokorraren emaitzak, bai eta sindikatu aberzaleek aurretik deiturikoenak ere —jarraipenaren inguruko zifra-gerra albo batera utzita—, oso mugatuak izan dira. Euskal gizarte eta herritarren bizitza geraraztetik oso urrun egon dira. Beraz, ezin da greba orokor baten edo bestearen arrakastaz hitz egin. Greba orokorrak ugaltzeak —urtebete hiru greba Hegoaldean eta lau Iparraldean—, ekintza bateraturik gabe eta sektoreak eta herritarren bizitza geraraztea lortu gabe, bai Hegoalde eta bai Iparraldean ere, ez du prezeski greba orokor batek izan behar duena prestigiatzea lortzen. Sindikatuek autokritikarekin aztertu beharko lituzkete beren ekintzak eta deialdiak, bai eta greben aurretik sektore, auzo eta herrietan egin duten antolaketa eta lan aktiboa. Berriz ere akats beretan ez erortzeko eta langileak ez gogaitzeko. Eta modu horretan, ez desprestigiatzeko benetako greba orokorra.

Juan Mari Arregi



## BAHEA

Iñaki Arrutik [gipuzkoaeuskara.net-en](http://gipuzkoaeuskara.net-en) esanak: “Hainbat pelikulan ikusi izan dugu New Yorken taxi bat hartzen duen hainbat bezero gidariarekin elkar ulertu ezinik ibiltzen dela, hark, kasu horietan atzerritarra gehienetan, ingelesez ez dakielako. Orain egun batzuk entzun nuen Euskadi Irratiko *Mezularia* programan antzeko egoerak ere gertatzen ari direla Bartzelonan eta gaztelaniazko edo katalanezko gaitasun-proba bat gainditu beharko dutela taxi-gidariekin, taxi-gidari izateko baimena lortu ahal izateko, datorren urtetik aurrera. Datorren urtean ere, Gipuzkoan mila inguru ‘zinegotzi-baimen’ emango ditugu gipuzkoarrok maiztzean izango ditugun udal hauteskundeetan. Nik, baimen hori jasotzeko, gaztelaniazko eta euskarazko gutxienezko gaitasun-maila bat eskatuko nieke; taxi-gidariekin egingo zaien antzera”.